

Soraiotasunerako tarterik ez

Peru Iparragirre

Lau urte igaro dira Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) *Euli-giro* (Susa, 2013) ipuin liburua argitaratu zuenetik –azkar doa denbora–. Aurreko asteko asteartean aurkeztu zuen *Jenisjoplin* (Susa, 2017), bigarren nobela. Nagore Vargas narratzaile-protagonistaren bizitzako gorabeherak gidatzen dute kontakizuna. Ez da errealitatea modu objektiboan kontatzeko saiakera bat. Vargasen begiradatik eta esperientziatik jasotzen dugu munduaren berri eta berak egiten du beste istorio eta esperientzia batzuetarako zubi lana. Alberdik era horretan gure historia hurbileko problematika batzuk modu sinetsgarrian lantzen asmatu duelakoan nago (2014. urtera arte luzatzen da nobelaren denbora-lerroa).

Alberdik horretarako sortu duen pertsonaia nagusia konplexua eta, istorioa bezala, ertz anitzekoa da. Bigarren eta hirugarren mailako pertsonaiekin dituen harremanetan, ekintzetan eta gogoetetan nabarmena da Vargasen identitatearen bilakakera nobelaren momentu ezberdinetan. Liburuaren hiru ataletan



Jenisjoplin

Egilea: Uxue Alberdik
Argitaletxea: Susa.


zehar 2010. urteko uda amaieratik 2014ko uda hasiera arteko denboraldiari dagokion narrazio nagusiarekin tartekatzen diren oroitzapen edo anekdoten konplexutasun hori ulertzeko balio duen atze-oihal moduko bat ematen diote irakurleari, nobelari bolumena eta sakontasuna ematen diotenak. Era berean laguntzen dute kontakizuna denbora eta espazio konkretuetan kokatzen dituzten elementuek: leku-izenak, erreferentzia kulturalak, gertakari historikoak...

Istoriota sakona izanagatik ere, Alberdik darabilen kontaera bizia da. Horren alde egiten duen faktoreetako bat da elkarrizketen eta ekintzen ugaritasuna, gogoetarako tartea badagoen arren akzioak, gorputzek eta ahotsek berebiziko garrantzia baitute nobela honetan. Deigarria egin zait, ohitura falta izango da, testuari oso ondo lotzen zaizkion elkarrizketak hitanoz emanak direla gehienbat. Orokorrean hizkera soil eta batera behartu gabean idatzia dago *Jenisjoplin*, Vargasen jario gordinak hala eskatuko balu bezala. Testua hain da gardena batzuetan non istorioari

leku uzteko bere presentzia kasik txikitu ere egiten baita, edo hala iruditu zait, behintzat.

Liburuaren aurkezpenean esan zuen Alberdik Euskal Herriko gatazka politikoari lotuta «bizipen eta kontraesan pertsonalak eta belaunaldikoenak» arakatzeko saiatu dela. Arakatzeko horretan askotarikoak dira pertsonaien bidez lantzen dituen auziak. Pisu handia dute, hasieran aipatu problematiken artean, gaixotasunaren inguruko gogoez, zaurgarritasunaren kontzientziak, borrokek, zaintzak, plazerak eta, indarkeriak, besteak beste.

Vargasek transmititzen duen egonezina da nagusi liburuan zehar, pasarte ustez lasaietan ere, azken orrietan izan ezik. Pertsonaiekin batera eraldatzen doan egonezina da, hala ere, ustekabean jarrera irmo eta ustez ziurtasunez betetako batetik jarrera zalantziatuta bat hartzea behartua ikusten baitu bere burua Vargasen. Ziurtzat jotzen ditugun gauza asko zalantzan jarri behar ditugula gogorarazten digu nobela honek, gure izaeraren beraren oinarri diren ere.



'ETAren historia laburra'

Egilea: Iñaki Egaña.
Argitaletxea: Txalaparta.

Iñaki Egaña historialariak lan berria kaleratu du ETAn hainbat esparru ikertuta: militantzia, nazioarteko harremanak, batzarak, elkarrizketak eta beste. Historia lerro berriak marraztu nahi ditu Egañak, Euskal Herrian azken urteetan eragin gehien izan duen fenomeno politikoa ezagutzeko eta ulertzeko laguntzeko.



'Egungo euskal komikiaren historia'

Arduradunak: Jon Kortazar eta Iñax Retolaza.
Egileak: Askoren artean.
Argitaratzailea: EHU.

Euskal komikigintzaren historia literario bat osatu dute hainbat egilek, Iñax Retolazak eta Jon Kortazarrek zuzenduta. Begirada literarioa eta linguistikoa uztertuta, azken 30 urteetako komikigintzaren ibilbidea interpretatzeko bide eman nahi du.



'Bertsuaren eremua'

Egilea: Xabier Mihura eta Jean Louis Harinordoki.
Argitaratzailea: GFA.

Fermin Mihura azkaindarren 1987-2013 urte arteko bertso bilduma argitaratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 2013an zendu zuen Mihura, eta haren seme Xabierrek eta Jean Harinordoki *Laka* bertsolariak osatu dute bilduma, Joxemari Iriondoren laguntzarekin.

Formula literatura

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Munstro txikiak bildumaren lehen alea da *Hagintxoren tripako mina*, eta sei pertsonaia nagusiz osatuta dago: Hagintxo, Mamutxo, Franakitxo, Neskaotxo, Sorgintxo eta andereño Herminia.

Formula aurrezarrari bat errepikatzen duten bildumen molde jarraitzeko asmoa duela ematen du: Abentura autokonklusiboak, estilo yankian ezarritako pertsonaiak, ekintzak eta egoerak... Ikusiko dugu hala den ondorengo aleetan.

Kontaketaren testuingurua *Hotel Transylvania* filmaren spin-off gisa har liteke, edo, gutxienez, bertako giroaren eta pertsonaien *berrasmatze* gisa.

Ez dira pertsonaiak deskribatzen, akzioa nagusitzen da luzatzen den hamar ataletan, baina egia da ere lekuak eta giroak des-

kribatzeko ageriko ahalegina dagoela, antzeko formatua erabiltzen duten obretan ohikoa dena baino gehiago. Ez zait iruditu, halere, kalterako izan denik, nahiz eta neure buruari galdetu diodan ez ote duen erritmoa apur bat moteltzen.

Emaitza duina iruditu zait, lau eskutara idatzita dagoen esperimendu ausarta, Agirre eta Mendiguren tandemarena, agian honen esperientziari eta haren freskotatunari esker...



'Hagintxoren tripako mina'

Idazleak: Alaine Agirre eta Xabier Mendiguren.
Ilustratzailea: Belatz.
Argitaletxea: Elkar.

Platonen baso-eskola

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Bigarren atal honetan udaberria iritsi da basora, eta, harekin batera, piztia guztien esnatzea. Lehenengo liburua amaitu zuen testuinguruan hasien da, jarraipen sententzia emanez, obra mardulago baten liburuak balira bezala.

Ehun orrialde justuko izanik, praktika gutxiko irakurleentzako denik ez du ematen, baina hala da. Orrialdeak osorik hartzen dituzten irudiz jantzita dago, testu gutxiarekin, ia dena elkarrizketak.

Ilustrazio lanaren gainean ezartzen da oinarri narratiboa. Marraketa lan umila da, ez baita nabarmentzen ez formatan, are gutxiago darabilen kolore bakoitzean. Testuak hartzen du prota-

gonismo osoa, eta, haren bidez, pertsonaien burutazioek.

Umore zirikatzailea da nagusi, eta elkarrizketa arinen bidezko hausnarketa zorrotz eta sakonak eskaintzen zaizkigu. Untxik jartzen du arazoa agerian, bere aldarre suminkorrek, eta Hartzek gidari lanak egiten ditu, arazoak elkarrizketa bidez agerian jarrita, filosofo zaharren erara.

Guztiarekin, dibertigarria bezain hezitzailea den emaitza lortzen dela iruditu zait, harrigarriki dibertigarria eta hezitzailea.



'Okilen matranka'

Idazlea: Julian Gough.
Ilustratzailea: Jim Field.
Itzultzailea: Edu Zelaieta Anta.
Argitaletxea: Ibaizabal.